



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko apirilaren 1eko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko apirilaren lehenean arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IRIART Jean Claude, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

Saioko idazkaria: CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren data: 2025eko martxoaren 28a

Afixatze data: 2025eko martxoaren 28a

11. ERABAKIA: ToLFEP-en ESKUHARTZE ESKAERA B964 LUR-SAILEAN EKINTZA BATEN EGITEKO *(3.1 nomenklatura)*

Ortzaize herriak Ipar Euskal Herriko ToLFEP-en zerbitzuak baliatu nahi ditu B 964 lur-sailaren zati bat negoziatu, eskuratu eta hartan ekintza baten egiteko.

Herriak badarama zenbait denbora ekipamendu publikoak hedatzeko eta bereziki futbol taldeari arauen arabera instalazioak emateko futbol lehiaketetako partida ofizialak hartu ahal izateko.

Horretarako, herriak lur zati bat bereganatu nahi du instalazio horien eraikitzeko (aldagelak, harrera-gunea, biltegiak, aparkalekua, ...).

Gutxi gorabehera 1000 m² beharko lituzke proiektuaren gauzatzeko.

Lur-saila zatiketa eta zedarritze lanen ondotik, beharko lukeen lur zatia B 964 lur-sailean kokatzen da, futbol zelaiaren hegoaldean eta Uxarako Bidetik sarbidea ukanik.

Xede horrekin, Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik,

Ipar Euskal Herriko ToLFEP-ari dei egingen dio B 964 lur-sailean kokatuak diren ondasunen negoziatu, eskuratu eta kudeatzeko,

Eskatu du, erakunde haren eskuhartze baldintzen berri ukatea behin haiek finkatu-eta.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 11
Adierazi diren bozkak: 11
ALDE: 11
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko apirilaren 1a

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko apirilaren 3an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.